



Enpelo

2019ko maiatza - 18. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



25 urte
eta gero...



zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udalaren
Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

aurkibidea

- **3** Aurkezpena
- **4-5** Emakumeak bidea egiten
- **6-7** Garai bateko eta oraingo jolasak
- **8-9** Goizueta Internazionalela
- **10-12** Bidaia: Perú
- **13-16** Goizueta iruditan
- **17-19** Kultur agenda
- **20-21** Euskaraldia
- **22** Denboropasak
- **23** Zinegotzien balorazioa
- **24** Ezetz osmatu
- **25** Atzera begira: 1999
- **26** Bertso txokoa
- **27** Inkesta
- **28** Zure txanda





25 urte eta gero...

Bizitzan gertatzen ari diren aldaketan isla izan da aurten Goizueta. Izan ere, emakumeak, behar duten espazio eta presentzia eskuratzen ari dira poliki-poliki bizitzaren arlo guztietan. Horren isla da Goizuetan emandako urratsa ere. Aurten, lehenbiziko aldiz neska bat atera baita zahagi herriko karnabalean. Goizuetarrok historia egin dugu 2019an, sekula ikusi gabeko gune batean emakumeek tokia hartu dutelako, naturaltasunez. Erabaki honek beste data garrantzitsu batekin egin du bat, gainera, aurten 25 urte bete direlako emakumeak mozorro ateratzen hasi zirenetik. Gertakizun garrantzitsu hori jaso nahi izan dugu XAPOko XVIII.ale honetan, lekukoa jasotzea ezinbestekoa baita ondoren-

go belaunaldiak ere herriko historia-
ren nondik norakoak jakin ditzaten.

Gertakizun nagusi horrez gain, badira herriaren inguruko bestelako gaiak aldizkarira ekarri ditugunak, esaterako, Xalto eskolako ikasleen kolaborazioa. Iaz egin zuten moduan aurten ere lan polit bat osatu eta eskaini digute. Alaitz Eskudero herri-tarrak Perura egindako bidaiaren kontakizuna egin digu, argazki doto-reez lagunduta. Baina ez dira aldizkariko argazki ikusgarri bakarrak izanen, Pili Apezetxearen erretrato sorta ere erakutsiko dizuegulako. Herriko hainbat txokoren irudiak bildu ditu Pilik *Goizueta Iruditan* atala osatzeko.

Aldizkaria kaleratzearekin batera amaituko da Udal taldearen legealdia

ere eta azkeneko 4 urteetan alkate eta zinegotzi izan direnei galdera egin diegu legealdiaz: ea nola joan den eta zer balorazio egiten duten amaitzearen epe honi buruz.

Bestetik, herrira lanera eta bizitzera kanpotik etorri diren emakumeei erreparatu diegu erreportaje batean. Joan den abenduan egin zen Nazioarteko Jaiak emakume hauek ezagutaraztea eta herrira gerturatzea izan zuen helburu. Orduan bizitakoak jaso ditugu orri hauetan.

Gai horien ondoan beste hauek ere irakurriko dituzu: Euskaraldia, Kultur Agendaren errepasoa, Atzera begira, Bertso txokoa, Ezetz Asmatu, Inkesta, Zure txanda eta Denborapasak. Guztia zuen gustukoa izanen delakoan prestatu dugu, ea zer diozuen!



Aurtengo mozorroak.

Emakumeak bidea egiten

LEHENBIZIKO NESKA ZAHAGIA IKUSI DUGU EMAKUMEAK
MOZORRO ATERATZEN HASI ETA 25 URTERA

Historian hizki handiz idazteko modukoak izan dira 2019ko inauteriak. Lehendabizikoz emakume batek zahagiaren papera hartu du, Garazi Loiartek izan du ohore hori. Bere hitzetan, “nerbiosa, lehenbiziko pausoa mattera ezta

errex. Halare mozorron babesa sentittu nun ta baita herritarrana re. Baton bat aipatzekotan, Joxe Mari Tximixta sango nuke, bera da herriko zai erreferentea ta Malenen kusi nunen musu mattera jon ta etzit ahaztuko nola san tzian: “urte asko-

tako!”. Bere hitz hoiek ohore bat dia neretzako.”

Joxe Mariren hitzetan berriz, “arrunt politta aurtengo dantza, desfilea matten tzun Malenen betti. Normalen enaiz atetzen zai dantza kus-tera, etzit gustatzen, biño aurten zai



Mozorroen artean Rosa Olaizola trikitixarekin.



Garazi loiarte, lehenbiziko emakume zahagia.

bat emakumea zela ta kusi in nahi. Gure itxen azpira alletu zianen, Zabalako Garazik etzun bueltik man. Tap geldittu, makilak Tup! zaia jo ta soñu erra atere zun, aspaldin ez bezala. Ni holaxe makurtzen nitzan zaiak soñua atetzetikan. Ta handik aurrera, buelta man o nahi duna itteko libre da. Hori bai, zaiak dantzako trebea izan bar do, emakumea o gizona izan. Nahi dunari pozik erakutsiko nike”.

Aurtengo inauteriek bezalaxe 1994. urteko inauteriek ere historia markatu zuten. Izan ere, orain dela 25 urte atera ziren emakumeak ofizialki mozorroetan. Ofizialki esan beharra dago aurretik Rosa Olaizolak 10 urte bazeramatzalako soñua jotzeko kontratatua. Baina, 1994an trikitixa utzi eta karnabaletaz gozatzea erabaki zuen. Berak esan digunez, ez zen erabaki erraza izan, ez beretzako eta ezta beste emakumeentzako ere. Igande gauean afaltzera joan eta botazioa egin omen zuten emakume izateagatik mozorro izateko eskubidea bazuten edo ez erabakitzeke. Ezezkoa atera zen. Orduan, asteleheneko pus-



Olatz mozorroa Garazi zahagia margotzen.

ka biltzera afariko emakumez gain, beste batzuk ere animatu ziren babesa emateko eta beraien eskubideen alde egiteko. Denera 10: Rosa, Bide-txo, Amaia, Rakel, Maixe, Maite Ortigosa, Mila, Marian, Maite Zugarramurdi eta Igaratza.

Zorionez 25 urtek askorako ematen dute eta beraiek emandako pauso hartatik, gaur egun arte emakume mozorro pila ederrak gozatu eta antolatu ditu hain maite ditugun karnabalak.

Hau eskertzeko, aurten mozorroak **“25 urtez emakumea mozorro 1994-2019”** paratzen zuen zapi gorriarekin ibili dira. Astearte arratsaldean berriz,

10 emakume hauei zapi bana eta arratsaldeko lehenengo zahagi dantzan makilekin parte hartzeko aukera eman zitzaizen.

Esan bezala, 2019ko karnabalek historia markatu dute. Eta ezin dugu aipatu gabe utzi herrian sumatu den giro alai eta ona, batez ere mozorroek baserritarrei eskainitako bertsoa bere argazkiarekin eta mozorroek izan duten errespetua etxeko ateak ireki dituztenekiko eta herritarrekiko.

Horietxek dira gure herriko inauterien ixtorioak eta historia. Gertatutakoak erakutsi diezagula gure ohituren bertsio hobe bat egiten. Atzera begiratuta denak daukagu ikasteko zerbait. Gizartea aldatzen ari da eta aldaketaren klabe bat berdintasunaren printzipioa da. Denak eduki nahi dugu karnabaletaz gozatzeko eskubidea, eta behin eskubidea bermatutakoan, norberak erabaki dezala non, nola eta norekin bizi nahi dituen. Modu libre hone-tatik jasoko dute gure ondorengoek tradizioen egitazko esentzia, errespetuan eta originaltasunean oinarritzen dena.



Gurasoak beraien garaiko jolasean.

Garai bateko eta oraingo jolasak

Andres Narbarte "Xalto" eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gara. 1930/50 hamarkadetatik abiatu eta orain arteko jolasen bila-kaera azaldu nahi dizuegu.

Hasteko, gure aiton-amonek hain gustuko zituzten jolasetako batzuk aipatuko ditugu: bixikatan, kanikatan, gordeka, katarrapikaka, kromotan, harrapatze... besteak beste jolasten zuten.

Gure gurasoen jolasak eta aiton-amonenak oso antzekoak zirela ohar-tu gara. Joko batzuk materiala behar izaten zuten. Horretarako eskura zeukatena erabiltzen zuten: adibidez, harriak, latak, tabak, txapa... Euren arteko hizkuntza ere, gaztelania izaten zen, batez ere, jolaste-

rako garaian. "*Ratón que te pilla el gato...*"

Bestetik azpimarratu behar dugu neska eta mutilak ez zirela elkarrekin jolas berdinetan ibiltzen.

Gaur egungo jolasetan ez dira garai bateko materialak erabiltzen: larruzko baloiak, plastikozko txapak, pelotak, era askotako panpin doto-reak,... eta nola ez, teknologia berriak: ordenagailua, mugikorra eta tableta erabiltzen ditugu.

Tresna horiekin jolasten eta bideoak ikusten pasatzen dugu denbora, kalean lagunekin jolasten baino gehiago.

Era berean, badakigu garai haietan jolasetarako hizkuntza gaztelania zela eta orain, euskaraz mintzatzen gara.

Neskak eta mutilak nahi badugu elkarrekin jolasten gara, lehen ez bezala. Hobeto pasatzen dugu denok batera gaudenean. Giro biziagoa sortzen da gure artean eta horrek lagunen lagun izatea bultzatzen gaitu.

Joku batzuen garapena azalduko dizuegu: gure aiton-amonena, gurasoena eta gurea.

Katarrapikaka

Jolas hau burutzeko gutxienez hiru pertsona behar dira. Hauetako bat para izango da. Pertsona horri begietan zapi bat jartzen zaio ez ikusteko. Zapia duenak hamar arte kontatuko du. Kontatzen ari den bitartean bere inguruan bueltak emango ditu.



Hiru belaunaldiak, ikasleak, gurasoak eta aiton-amonak.



Ikasleak jolasean.

Une horretan besteak gorde egingo dira, eremu zehatz baten barruan. Bueltak ematen bukatzen duenean beste guztiak zeuden lekuan geldituko dira. Para denak eremuaren barruan mugituz norbait harrapatu behar du. Harrapatzen duena, ikutuz, nor den asmatu behar du. Asmatzen badu, aurkitu duena izango da para. Ez badu asmatzen berriro bera izango da.

Txorro morro piko tallo ke

Lau pertsona edo gehiago behar dira jolasteko, beti kopuru bikoitia. Bi taldetan banatuko dira. Talde batekoak enborraren alturara makurtuko dira. Besteak, gainera salto egin behar du-

te. Salto egindakoa, gainean dagoen batek: “Txorro morro piko tallo ke” esan behar du.

Behatz bakoitzak izen bat du: Potoloa txorro; erakuslea morro; erdikoa piko; alferra tallo eta txikia ke.

Gainean daudenak behatz bat altxatu behar dute. Makurtuta daudenak asmatu beharko dute. Asmatzen badute beraiek izango dira salto egiten. Ez badute asmatzen, lehen bezala jarraituko dute.

Arau batzuk ere badira: Salto egin ondoren makurtuta daudenak erortzen badira, berriro gainera salto egingo diote. Salto egiten ari direnak erortzen badira, taldeak trukatu egingo dira.

Stop

Jolas honetan jokatzeko hiru pertsona behar dira gutxienez. Hauetako bat para izango da. Pertsona horrek besteak harrapatzen saiatu behar du; jokalariek STOP esan dezakete; hori esaten badute, geldirik geratuko dira. (Ezin dituzte harrapatu) Geldirik dagoenak jolasten jarrai dezan, jokalaria batek txokala eman edo hanka artetik igaro behar du.

Harrapatzen ari denak, jokalarietako bat ikutzen badu, bera izango da para.

Denak Stopean gelditzen badira, azkena Stop esan duena izango da hurrengo partidaren para.



Goizueta

Internazionala

Abenduaren 22a da, eguberri ataria, eta jangelan, lana dela medio, beraien familiarekin elkar-tu eta egoteko aukerarik ez duten 13 emakume daude. Baina zein dira emakume hauek?

“Goizueta Internazionale” herrian erroldatuak dauden nazionalitate ezberdinetako herritarrak ezagutzeko

sortutako jaialdia da. Herri txiki honetan ere aniztasuna badela erakusten duen jaialdia. Baina Goizuetako erroldan, kanpotik etorritakoen artean gehienak, etxeetan lana egiten duten emakumeak dira, gehienak, Honduras eta Nicaraguakoak.

Gaur, ezagutu egingo ditugu eta beraien lana ikusarazi, aitortu eta balioa

emango zaio. Baldintza kaxkarretan daude gehienak lanean, 24 orduz interna moduan, baina kontua da herriari zerbitzu bat eskaintzen diotela eta gure menpeko xaharrei bertan bizitzen jarraitzeko aukera ematen diotela.

Hasi da ekitaldia. Batzuk lanetik libratzeko zailtasunak izan arren, az-

**Jon Abrilek jaialdi honen inguruan
Xorroxin eta Euskalerrria irratietara-
ko egindako kolaborazioa**

Eguberrietako postala

Nik aukeratu dut eguberrietako postal kuttunena. Argazkian 13 emakume ageri dira. Guziak Honduras eta Nicaraguakoak. Gazteak. Batek haur ttikia besoetan du. Gure amatxiak orain 50 urte Iruñerat, Donostirat, Biarritzera, Donibanerata edo Parisera joan ziren bezala, etorkizun eta bizibide baten bila etorriak. Argazkiko 13 emakumeak Goizuetan daude gaur. Bihar batek daki, lana non topatuko eta harat joanen dira. Argazkian ageri diren 13 emakumeak gure etxeetan ari dira lanean, adinekoak zaintzen. Honduras eta Nicaraguakoak bezala, Boliviakoak, Ecuadorkoak, Perukoak... ere badabilta. Baina azken boladan ia erabat Hon-



duras eta Nicaraguatik etorritakoak ari dira. Antzinako hamarkadetan etorritakoek lan hobeak topatu dituztelako, eta etorri berriek hartu dituztelako 24 orduko lan lekuak. 24 orduz lanean, bertze norbaiten etxean beti, familia konpartituan, norberaren bizitza proiekturako etxebizitza bat edukitzeko ezintasunarekin, familia bat osatzeko zailtasunekin. 24 orduz etxean, bizitza sozialaren parte iza-

teko aukerarik gabe, atsedeen ordu eskasekin, lan fisiko eta psikologiko gogorra betez, hemengoek egin nahi ez tugun lana eginez.

Goizuetako Udalak omenaldia eskainiko die herrian lanean ari diren emakume horiei, denak emakumeak baitira. Eta niri, eguberrietako postal hoberik etzait otu. Gure etxeetako parte ere baitira.

Mila esker emakume hoiei!

kenean, 13 protagonistak elkartzea lortu dugu. Haiek eta gu. Aurrez-aurre. Beraien artean elkar ezagutuz eta gu beraiek ezagutuz. Lehen kontak-tua. Aurpegi bakoitzari izena eta ja-torria jarri diogu eta banan bana aur-kezpen ttiki bat egin dute; beraien testigantzak kontatu dizkigute. Hun-kigarria. Hunkigarria entzutea ba-koitzaren hitzak, hemen topatu du-tena, urduritasuna eta esker ona. Itsasoa bezain bihotz zabala. Malko ttikiren bat ere atera zaigu. Beren he-rria eta beraien kultura ere ezagutu ditugu. Honduras eta Nicaraguako janaria dastatu dugu, musika eta dan-tza; beraiek bezain gozoak eta alaiak.

Udalak omenaldia eta egiten duten lanaren aitortza egin die, oroigarri baten bidez eskertuz. Guretzat, oroigarria, egun hau bizitu eta memorian gorde izana, eta noski, beraiek eza-gutu izana.



PERÚ, kontrastez betetako lurraldea

€uneroko rutinakin pixkot nekatua, 2018ko iraila bukaeran putzua irao ta Peru aldera abitu nitzan, motxila bizipen berrikin beteta kartze-ko asmotan. Hiru hilabetez, herrialde zoragarri hontako mila txoko bisitatzeko aukera euki nun, paisaje txoil difentek ta batez ere jende maitagarria.

TRUJILLO

Peruko iparralden don kostako hiri hontan hilabete oso bat pasatu nun “Hilo Rojo” izeneko ONG baten bidez eskola baten lana iñez. Bertan, txabola giseko eraikin batzutan, eskolara joteko aukerik ez tuten umek biltzen ginittun ta klasek maten ginittizten, bestela kalen eoin liakelako. Arrunt egoera gorrotan bizi dian umek dia, ukerrana jaso ta beran hobena maten dizte beti. Ume hoi en amakin e (normalen oso ama gaztek, ikasketa gabek ta baliabide gutxikin) tailer difentek antolatzen ginittun, alfabetatze klasek, josteko klasek... beran ahalduntzea lantzeko.

Mundu guzitik jontako 20 bat boluntario bizi giñan elkarrekin, Trujilloko zentrokin deus kustekoik etzun auzo baten. Delinkuentzia asko, kalek zikiñak, trafiko kaotikoa ta 24 ordu-

ko zalaparta izaten ginittun. Hala re, hain toki itxusia izateko, arrunt oroitza pen ona utzi dit hiri honek.

AMAZONAS

Trujilloko kaosa atzen utzi ta Amazonaseko lasaitasunera jon nitzan.

Huacachina.



Amazonaseko indigenekin.



Huaraz.

Aberastasun biologiko izuarrizko lurralde hontan naturakin kontaktua ikaragarria da. Zenbat landare, animali (tximuk, perezosok, kaimanak, tarantulak) ta komunitate indigena desberdin topatu ote nittun! Oa indik turismoa gehigi sartu ezten toki hontan itxen bezala sentiarazi niñoten.



Paracas.



Amazonas ibaia.



Uros irla, Titicaca.



Ong hilo rojo, boluntario ta ikaslek.



Cusco kalean.

Batez ere, Chachapoyas, Tarapoto edo Lagunaseko oihanen.

HUARAZ

Amazonaseko berotik mendi aldera abitu nitzan azaro hasieran. Alturak sortzen dun neke ta ongiezari (5000 metrotan, itsas mailako oxigeno kopuru erdia do, ta kosta itten da arna-

sa hartzea) pixken-pixken buelta hartuta, ta koka hosto edo infusiori esker, 3 trekking in nittun aurretik ONGn ezaulutako laun batzuekin elkartuta. "Laguna Paron" aklimatazioa itteko eokia da. Glaciar de Pastoruri, 5000 metrotan don glaziarra, aldaketa klimatikoak dela ta pixkanaka urtzen ai dena, ta azkenik, Laguna 69. Azken hau izuarri polita da. 3

orduko ibilbide zoragarrin ondoren, laku urdin fosforito horrekin topatzek... ezto prezioik.

PARACAS

Berriz ere kostara bueltu nitzan, Peruko hegoalderantz. Paracas izeneko erreserba nazionalen pasatu nun aste bat. Ballesta islatako fauna berezia ezaulu nun (pinguinok, itsas-lehoiak, hegazti migratzaile pilla bat), parapentetik kostako bixtaz gozatu nun ta Huacachinako dunatan "buggy" baten ibiltzeko aukerik enun galdu.



Titicaca.

AREQUIPA

“Misti” sumendin magalen, “La ciudad blanca” deitzen diten Arequipa izeneko hiria da. Peruko biarren hiri haundina den hontan, arrunt izakera bereziko jendea bizi da. Limakin halako pike bat badute, historian zehar iraultza haunditara eramana ttuna. Hiri polita ta atsegina da Arequipa. Bertan astebete pasatu nun ta ondoren “Cañon del Colca”ko 3 euneko trekiña in nun. Munduko kañoiik sakonatakoa omen den hontan, Andetako mendilerroko Kondor kopuru haundia bizi da.

TITICACA

Peru ta Bolivia artan, 3800 metroko altueran, munduko laku nabegable haundia da: Titicaca. Alde baten Aimarak ta besten Quechuak, baten zein besten, Titicacako biztanlek sustraiatara lotuk daude, ta ez tute turistari beran ohitturan berri matego aukerik galtzen.

Boliviako alden -Isla del Solen- pilak kargatu nittun (saten dute munduko energia zentroa dela Titicaca) ta Peruko alden -Uros, Taquile, Amantani islak- Laida Petrinekoka ta bere laun Maialenekin elkartzeko aukera euki nun: Earra da bakarrik biatzea, biño nere jendekin elkartzea re polita izandu zen.

CUSCO

Dudik gabe, Perura jon ta bixitatu gabe utzi ezin den hiria da Cusco. Inken inperioko hiriburua izantako



Vinicunca edo Montaña 7 colores.

hontan, ordu eta ordu pasatu litetzeko bere kaletan paseon. Cusco ingurun mila toki berexi daude bixitatzeko. Niri gehina gustatu ziana, Vinicunca edo “Montaña de los 7 colores” izandu zen. 5200 metroko altueran, zaila da esnasia hartzea, biño halako kolorek ikusitakon bestelare esnasi gabe gelditu litteke edozein. Nik bizin kus ttuan paraje berexinak, dudik gabe.

SALKANTAY - MACHU PICCHU

Machu Picchura joteko mila modu daude: autobusa, trena, oinez... Guk (Cuscon Euskal Herriko laun batzuekin elkartu nitzan) ordea, 5 euneko treking bat in giñun bertara aietzeko. Salkantay elurtua fondon giñula, men-

Machu Picchu.



di tarte baten barna ibili giñan Huamantay lakua bisitatuz, kanpiñatan lo iñez, eunitan (euri denboraldia orduntxe hasi zen), ondoren oihanera sartu ta azkenik Machu Picchu tenplu magikora aietzeko. Bukaera ezin hobea nire bidaiantzat.

San bezala, Perun txoko difente pila bat daude. Biño hortaz aparte, Peru jendea da, musika, gastronomia Aberastasun kultural izuarriko lurralde anitza, tradizio haundikoa ta batez ere Ama lurrari (Pachamama) errespetu haundia din herria.

Man ttian bizipen guzingatik, eskerrik asko Peru ta eskerrik asko Pachamama!

Alaitz Eskudero

2018ko iraila-abendua.

Goizueta

iruditan



A skotan ikusi izan dugu Pili Apezetxea argazki kamera eskuetan duela. Afizio horri esker pilatu dituen irudien artetik galbahea pasatzeko eta batzuk aukeratzeko eskatu diogu XAPO aldizkarrirako. Herriaren paisai ederak eta toki esanguratsuak erakutsi dizkigu Pilik bere argazkien bidez. Zuei ere gustatuko zaizkizuelakoan, gozatu XVIII edizioko erretratoez!









Kultur agenda

Orain artean "azaro kulturala" modura ezagutzen genuena "kultur agenda" bilakatu dugu. Era hone-tan, urtean zehar ekitaldi ezberdinak antolatzen saiatuko gara azaroan bakarrik zentratu gabe, eta hilabete hau gehiegi bete gabe.

Kultur taldeak, Udala eta Euskara Zer-bitzuarekin elkarlanean, hainbat ekintza burutu izan ditu azken urteetan. Azarotik hona asko antolatu ditugu, beti ere, herrian kultur programazio zabalago bat eskaintzeko asmotan. Dena den, kultur taldeak eskainitakoez gain badira bestelako ekintzak ere: jubilatuen eguna, abesbatzaren emanaldia, feriak, ihauteriak...

Hainbat ikuskizun izaten dela erakusten du horrek. Jarraian, kultur taldeak antolatutako ekitaldien bilduma duzue:

AZAROAK 3

Ttak! antzerkia, euskaraldia umoretik.

Euskaraldia aurkez-teko eta euskarare-kiko ditugun muga, erronka eta konpro-mezu pertsonalen inguruan hausnar-tzeko tartea izan ge-nuen.



AZAROAK 9

Alu ulu antzerkia.

Emakumeen sexualitatea, edertasunaren gogoeta, masturbazioa... iraganean izan ditugun eta oraindik dauzkagun ixilpeko hainbat gai aurkeztu zizkiguten. Esperientziak trukatzeko tartea ere izan genuen.



AZAROAK 10

Umeentzako jolasak eta txokolatada.

Guraso Elkarteari esker urtero arrakasta ukaezina duten haurrentzako jolasak burutu genituen frontoian. Txikienak, gaztetxoak zein gurasoak biltzeko eta arratsalde paregabe bat pasatzeko aukera eskainiz.



AZAROAK 16

Alardearen inguruan hitzaldia.

Bildu ginen herritarrok alardearen inguruan sortu den gatazka barrutik ezagutze-ko aukera izan genuen. Gaur egun politikak eta herritar batzuen interesak oraindik ere emakumearen paperari zer nolako mugak jartzen dizkioten aztertu genuen.




AZAROAK 30
**Gurean dokumentala.
Denok animaliak garelako.**

Herritarren interesekoa izan ez bazen ere, Euskal Herriko jaietan animaliek pairatzen duten tratua inguruko hausnarketa bat bultzatu nahi genuen herrian eta gure aisialdi eta dibertimenduaren atzean ezkutatzen den alderdia agerian utzi.


AZAROAK 23
Euskal kantu emanaldia.

Oairtzungo Irati, Ane eta Joxe Leonek euskal kantu emanaldi hunkigarria aurkeztu ziguten. Bertaratu ginen guztiontzako zentzumenak goxatzeko modukoa, garai bateko nahiz gaur egungo abestekin osatua eta parte hatzeko aukerarekin.

ABENDUAK 15
**Katarrapikaka
leihaketa.
2. edizioa.**

Leihaketa atzeratu beharra izan bagenuen ere, arratsalde oso batez Goizuetaren inguruko jakintza hedatzeko eta momentu dibertigarri asko partekatzeko aukera izan genuen berriz ere.


ABENDUAK 15
**Errege opila
ikastaroa.**

Cebank ostalari-tza eskolaren eskutik aurtengoan errege opila egiten ikasteko aukeratu luzatu genizuen herritarroi. Datozen gabonetan badakizue, ikasitakoa praktikan jarri!!!

ABENDUAK 22
Nazioarteko jaia.

Gure herrian azken urteetan lanean jarduten duten emakumeen lana errekonozitzeko behar bat ikusten genuen. Hala, hauek entzuteko, euren errealitatea ezagutzeko, musika eta janari ezberdinak dastatzeko elkartu ginen.



erreportajea

**ABENDUAK 30*****Olentzero eta subilaren lapurreta.***

Gabonetako oporrak aprobetxatuz, haurrentzako zinea antolatu genuen. Arratsalde paregabea pasa genuen bertaratu ginen haur eta helduok olentzeroen abenturak ikusiz.

**OTSAILAK 22*****Hodei magoa.***

“Ordu magikoa” ikuskizuna aurkeztu zигun Hodei magoak eta halaxe izan zen bertaratu ginen haur eta helduontzat. Truko sinple nahiz landuak ikusi genizkion eta gutariko batzuk ere parte hartu genuen.

**MARTXOAK 10*****Campeones pelikula.***

Oraindik ere, batzuk, kontutako larunbateko ajea bagenuen ere, herritar ugari elkartu ginen pelikula hau ikustera. Pelikulaz gozatzeaz gain, ikasteko asko daukagula ere ohartu ginen.

**MARTXOAK 16*****Karaokea.***

Euskara indartzeko beste era bat gure gazteenek euskaraz abestea dela argi daukagu. Horregatik, ordu pare batez euskal kantak astintzen jardun genuen. Batzuk kantatzeko gogo biziz etorri ziren eta beste batzuk entzutea edo dantzari aritzea nahiago izan zuten.

APIRILAK 14***Errementari pelikula.***

Beste igande arratsalde baterako plan bikaina antolatu genizuen *Errementari* pelikularekin. Filma 16 urtetik gorakoentzat izan zen istorio ilun eta misteriotsuak barnebiltzen zituela ikusirik.





erreportajea

Euskaraldia Goizuetan


Oraindik askoren buruan KORRIKA badago ere, guk tarte batez EUSKARALDIA-ri begiratuko diogu. Izan ere, Euskaraldia, Korrikaren antzera, ekimen arrakastatsua izan zen. Helburu jakin bat ere bazuen ekimen kolektibo hark: euskaraz gero eta jende gehiagok hitz egitea eta, era berean, herritarren kontzientzian eragitea.

Modu batera edo bestera heburuak lortu zirela esan daiteke, Euskal Herri osoan izan zuen oihartzuna ikusita. Goizuetan ere landu genuen Euskaraldia, gogoratuko duzuen bezala 11 egunez *Ahobizi* eta *Belarriprest* txapak jantzita ibili ginen. Egun haietan bizitakoa argazki bidez ekarri dugu XAPOra, ikusi zenbat herritarrek bat egin zuen Euskaraldiarekin. Baina komeni da ez ahaztea, ekimenak ekimen, euskaraz egunero egin behar dugula, gure hizkuntzak eskertuko digu-eta!!

DATU BATZUK:

Eskualdeko 4 herrietan: guztira 663 herritarrek izena eman zuten.

Goizuetan: 147 partaide
143 Ahobizi
4 Belarriprest







22

denborapasak

Aspaldian ez dugu denborapasarik prestatu XAPO aldizkarirako, baina oraingoan haxe ekarri dugu: Hizki zopa eta hitzen zerrenda bat esanahiekin lotzeko. Batzuk ezagunak egingen zaizkizue, Katarrapikaka lehiaketan entzundakoak dira-eta. Ea memoria onekoak zareten eta zenbat gogoratzen dituzuen!

Lotu esaldia hitzarekin

Esaldi bakoitza dagokion hitzarekin lotu.

1. Mendia lehertzen duen ur boltsa
2. Ardiek eta antxumeek lepotik zintzilik dituzten bi koxkor
3. Sute batek airean sortzen dituen zipriztinak
4. Zaldiek mugimenduan daudenean ateratzen duten hotsa
5. Eguzkia eta euria batera ari dituenean sortzen da
6. Gorotz hondarrak biltzeko egurrezko tresna
7. Behorraren edo zaldiaren lepo gaineko ilea
8. Arrainak harrapatzeko zepoak

illaunak
perikia
zurda
pertolak
gingiluk
tulubioa
perrotsa
azeripataioa

Hizki zopa

Aurkitu 7 tresnen izenak

G	U	R	I	A	T	U	Z	T	I
I	T	X	K	I	N	K	I	A	H
P	E	I	R	K	I	S	T	R	T
H	L	A	M	I	Z	U	X	T	A
E	T	X	A	B	I	L	A	A	R
J	Z	E	K	R	M	U	R	Z	A
D	A	Z	I	I	S	E	R	U	T
I	G	E	L	B	A	D	A	L	U
L	O	R	T	A	N	R	N	A	L
O	R	B	Z	K	I	A	A	E	U
I	R	E	A	I	O	S	O	R	A
M	A	X	T	A	L	A	M	I	A

ERANTZUN ZUZENAK:

LOTU ESALDIA HITZAREKIN: 1 - TULUBIOA, 2 - GINGILUK, 3 - ILLAUNAK, 4 - PERROTSA, 5 - AZERIPATAIOA, 6 - PERIKIA, 7 - ZURDA, 8 - PERTOLAK

HIZKI ZOPA: TXABILA, TARATULUA, BIRIKIA, MALATXA, KINKIA, ELIZAGORRA, TXARRANA

Zinegotzien balorazioa

1. Legegintzaldia amaitzera doanez ze balorazio egiten duzue 4 urte hauen inguruan?

2. Eta, pertsonalki, nolako esperientzia izan da udaleko zinegotzi izatea?



DANIEL OIARTZABAL

Balorazio positiboa egiten dut. Zerbait azpimarratzekotan zabortegiko obra esango nuke. Iruditzen zait Goizueta-arentzat "marroi" bat zela eta ingurumen-erako askoz hobe dagoela gaur egun. Bestalde, bidegorriaren luzapena egitea geratu zaigu pendiente. Baina ondorengoek egin dezaten lanean ibili gara.



ITSASO LUJANBIO

1. Balorazio positiboa egiten dut. goizueta.eus webgunea, "Goizueta informatzen" aldizkaria, panel informatiboak eta sare sozialak martxan jarri ditugu; kultur eskaintza azarotik urte guztira zabaldu da; eta euskara ikasteko taldea sortu da. Etxebizitza eta lokalen gaia-ekin lan handia egin da; bertan kontsumitzearen aldeko kontzientzia landu da eta autoenplegua sustatzeko dirulaguntza ateratu da.

2. Oso esperientzia aberatsa izan da. Lana egin behar da baina asko ikasten da. Herriar gehiagok ezagutu behar luke udala barrutik, eta proiektu handiak aurrera eramateko zer zailtasun dauden ikusi, esate baterako, hospitaletako edo gaztetxeetako obra. Udal eraikin berriak ez izanaren arantza daukat.



JOSU GARMENDIA

1. Mendian izandako pinuen gaixotasunaren ondoren, landaketak egiten jarraitzeko gogotsu gaude. 4 urte hauetan, gure poltsatik eta nafar gobernuak lagunduta, lan asko egin dugu. Mendia garbitzen saiatzen gara baina suteek atsekabea eta galera handiak ekarri dizkigute. Arantzatxo bat badut erreketak kontrolatuak egin ezinarekin.

2. Oso aberasgarria. Kanpotik esaten nuen "baina nola ez dituzte lan hau eta bestea egiten?". Baina barruan zaude la asko ikasten da, kudeaketari buruz, aurrekontuei buruz ... Herrian ezagutzen ez nituen asko orain ezagun eta batzuk lagun egin ditut.



MAIXE AIZPURU

1. Zubimuxu: Aurreko legealdian martxan patu zuten proiektua zen. Azkeneko urtetan udalak kudeatu du. Deialdiak ateratu ditugu, lehendabizi alokairuan hartzeko, baita ere pertsona bat kontratatatu lau hilabetez gestioa eramateko, baina desertu gelditu zen.

2. Asmo hobeenak sartu nintzen eta nere egoera pertsonalak utzi dian neurrin, saiatu naiz. Esperientzia aberasgarria.



PILI APEZETXEA

1. Burutan dauzkien proiektuak betetzea zaila egiten da, halere, hainbat lan aurrera ateratu ditugu: plazako zolaketa eta haur parkea berritzea, herriko argiteria Led-era aldatzea, zabortearen

itxiera, baserrien metro-mapa, baserri-tako seinalizazioa eta helplubideak... Beste hainbat martxan daude: udal-terreko igogailua, beko landako zolaberritzea, bide gorria... Eta nere arantza pertsonala aterpetzea da, ea laister norbete animatzen den!

2. Oso aberasgarria. Herriaren funtzionatzeko modua ez da kanpotik ikusten den bezalakoa. Jendea animatu nahi dut "itxe haundi" horrek ematen dun beldurra utzi eta parte hartzera. Esaera batek dion bezala; Ezagutzen dena maitatzen da eta maitatzen dena zaintzen da.



UNAI LOIARTE

1. Ohartzen naiz gauza asko egin ditugula: batzuk ikus daitezkeenak (obrak, ekitaldiak, jardunaldiak...), beste hainbat, berriz, kudeaketan geratzen direnak (katasstroa, elkartasuna sozietatea, hitzarmen desberdinak, eskualdea garatzeko lanketak, eragileekin errondak...). Zerbait azpimarratzekotan bi proiektu kuttun nabarmenduko nituzke: Gizarte Zerbitzuen bidez martxan jarri dugun ikerketa-beka, XX mendetik emakumeen partehartzea aztertzea objektu duena, Goizueta zein Aranoren. Bigarrena, Ibero gunearen berreskuratzea. Altxor bat dugu etxe ondoan, balioa gehienontzat ezezaguna dena, eta potentzial handikoa!

2. Ikasketa prozesu intentsu eta interesgarria izan da. Gainerakoan ikasiko ez nituzkeen berri izan dut eta bihotzez eskertua nago izan dudana aukeragatik. Momentu garrantzen bat bizitu badugu ere, goxotasunez daramat esperientzia. Guztiei aholkatuko nieke, herriarentzako proiektuak garatzeko aukera paregabea delako eta herria txoil ezberdina den ikuspuntu batetik ikasteko aukera ematen duelako. Alkate izatearen aukera eskertuko nieke udal kideei, gertu egoteagatik; udal langileei; eta orokorrean, galdezka, kritika hezitzaileekin, laguntza eskainiz... gerturatu zareten herritar guztiei.

EZETZ ASMATU

Eman begiratu bat argazki hauei, ea ezagutzen dituzuen lehengo eta oraingo herritar gazte hauek.



1999



Orain dela 20 urte Esteban Arozenak Ttipi-Ttapa aldizkarian argitaratutako kronikei ematen diegu gainbegirada ale honetan.

Hasteko, aipagarria Eguberri giroan nola mobilizatu ziren herritarrak. Abenduaren 26an 160 lagun joan ziren Sadarrera BAI EUSKARARI mugimenduak egindako deialdiari erantzunez; Urte zahar ilunabarrean plaza bete zen presoek eskubideen aldeko konzentrazioan; eta ilbeltzaren 3an 60 lagun bildu ziren Iruñeko kartzela aurrean Juan Mielen askatasuna aldarrikatuz. Bestalde, kale-ratzear zegoen GARA egunkari berriaren alde herrian 4 milioi pezeta bildu zirela jakinarazi zen.

Otsailean Santa Ageda eta inauteriak ospatu ziren (50 mozerro); Martxoan, Lizarra-Garaziko akordioaren aldeko hainbat ekitaldi ospatu ziren. Gainera, Alkasoaldeko eta Aitasemegiko bideak konpondu zituen Udalak, baita Antokako eta Alosartakoak hormigoitu ere.

Apirilean, Nafarroa, Euskal Herria eta Espainiako txapelketak irabazi

zituen Amaia Lujanbio lasterkariak; Juan Joxe Zubirik eta Patziku Perurenak *“Goizueta eta Aranoko hizkerak”* liburua aurkeztu zuten; Eta Asier Olaizolak binakako pilota txapelketaren finala irabazi zuen Logroñon. Hau guztia gutxi balitz, herriko neska talde batek garaipen izugarriak lortu zituen Nafarroako Euskal Kantuen Txapelketan. Hilabete honetan Juan Miel Apezetxea herriratu zen ia 20 urte espetxeratua egon ondoren. 530 lagun elkartu ziren frontoian ospatutako ongietorriko bazkarian.

Maiatzean ospatu ziren Udal hau-teskundeak eta EH izeneko zerrenda bakarra aurkeztu zen herrian. Pili Untxalo zen alkategai.

Ekainean, bost langile kontratu zituen Udalak mendi lanetarako. Lehen Jaunartzea, berriz, 11 neska-mutikok ospatu zuten, azken urteetako markak hautsiz. Herriko hainbat pilotarien garaipenen berri ere eman zuen Ttipi-Ttapak: Iban Loiarte, Xabier Apezetxea, Igor Apezetxea, Ekaitz Narbarte, Jon Narbarte, Jon Apezetxea...

Uztailean 175 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Udalak; eta abuztuan, jakina, *“ikaragarritzko”* fiestas ospatu ziren. Joxe Ripiau, Alaitz eta Maider, Imuntzo eta Beloki edo Joselu Anaiak musikariek, Lizaso, Egaña eta Sarasua bertsolariek eta puntako hainbat pilotari afizionatuek osatu zuten Amabirjinetako egitaraua.

Burugorriko pista konpontzeko 42 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Udalak irailean; Musika Eskolan 51 ikasle matrikulatu ziren, eta Arantxa Ansak emandako txalaparta ikastaroan 21 herritarrek parte hartu zuten.

Urria zen Jose Ramon Jimenezek Donostian burututako ezti lehiaketa garrantzitsua irabazi zuenean; azaroan Udalak eta Umore Onak Juantxo Apezetxea omendu zuten Munduko beste txapelketa bat Almerian eskuratu ondoren; eta urtea bukatzeko, Jon Maia eta Igor Elortzaren bertso trama izan zen ikusgai Gaztetxean. Gainera, 7 taldetan banatutako 56 gaztek parte hartu zuten Umore Onak antolatutako Herri Olinpiadetan eta 100 lagunek ondoren ospatutako zikiro jatean.



Pilota: gure kirol nazionala

"Pilota: Gure kirol nazionala" izenburupean 34 bertsoetako sorta aurkeztu zuen Esteban Arozenak Iruñako Udalak antolatzen duen Literatur eta Bertso Paper Lehiaketara 2018ko edizioan eta 3.saria eskuratu zuen.

Pilotaren inguruko atal ezberdinak aipatzen ditu Arozenak lan horretan, XAPOn argitaratu dugun laburpenean ikus litekeen bezala.

PILOTA TELEBISTAN

Atano eta Retegi aurrenekoa zen hori, auzo guztian telebista bat ez gendun gehiegi. Ma(ha)ian gazta bat edo bi, pantailan berrogei begi. Pilota ez zen ikusten baina horrek ze inporta guri!

PILOTARI AFIZIONATU ETA NEOPROFESIONALAK

Nolakoa den bizitza ezin ba denentzat ditxa! salagarria afizionatu hauen lan baldintza! Beti frontoian dabilta profesional onen gisa ta neskarekin meriendatzeko amari eskatu VISA

Parranda gehienak utzi, BMW bat erosi, frontoietako presio hori gainditzan ikasi. Baina lau urtera kasi etxera zoaz ihesi tarte horretan zapelaren bat ez baduzu irabazi.

ZESTA PUNTA

Munduan zehar Jai Alai dauka izena, bai ai! gaur egunean bere izana ez alai ta ez jai. Manila, Habana, Shangai... Ipar Amerikan nun nahi milaka lagun egoten ziren euskal pilotarien zai.

Galdu ziren hango pistak bi hormak eta zirriztak, ba, hemen ere deus onik ez du erakusten bistak. Hegoaldeko puristak Iparraldeko turistak... Hauei esker irauten dute zesta puntako artistak.

PILOTAREN HASIERA

Urbia ta Aralarren batek joarea jotzen artzai taldea soro erdian hasten zen elkartzen. Ondoren bitan banatzen elkarri bola botatzen eta seguru, bakoitza bere bildots onenak jokatzen.

Gero neguaren kontra herrira mendiko tropa eta han plazan artzai gazte bat bakarrik dago-ta. Hark bola hormara bota eskuz edo tresnaz jota. Ba, horrelaxe sortu omen zen gaur eguneko pilota.

FRONTOIAK

"Ezkontzen zaigu Arantxa goazen Labritera txa,txa!" buztan handi bat lepoan hartu ta dabil hain "pantxa". Aurrena hartu "Ban Cancha" ta gero frontoira martxa nahiz eta askok ezin berezi ezker pareta ta kantxa.

Hala ere handiena Iruñean dagoena, Gobernu baten harrokeriak eraiki zuena. Baina orain ze problema hura mantentzearena! Izenak hala dioen arren ez da "Nafarroarena".

HERRIARTEKO TXAPELKETA

Herri oso bat lanean pilotaren afanean, Goizuetak hori egiten zuen garai onenean. Ia beti finalean, sei zapel almazenean Herri Arteko Txapelketa hau benetakoa zenean.

Herri artekoa zena orain dugu kluban dema lauren artean jan baitigute Nafarroa dena. Adibide hoberena Erreka ta Oberena. Aldatu honen izpiritua edo aldatu izena.

PALMARESA

Ibero ta goizuetarrek, orokorrean nafarrek nola a(ha)ztu ba egindakoa bi mutil bizkorrek? Juez eta frontoiak errek Irujo "polbora" horrek ta apal-apal apal gainean zapel gehiena Aimarrek.

ARTEKARIAK

Artekarien mundu hau haien mauka, gure barau, korretajeen araudi horrek ni asaldatzen nau. "Zien kolorau, zien kolorau" guk eskua altxatu, rau! galdu ezkeru ehun ordaintzen da, jaso laurogei eta lau

Bai al dakizu non dagoen Urumea erreka-ren iturburua?




Jose Javier Etxeberria

Beiñestik bettiko presako erreka (Perralekutik heldu dena) edo beti obratan don itheen atzeko alde ingurun.



Daniel Oyarzabal

Beriñesko presan.



Maitane Apezetxea eta Aitor Aranberri

Ezkurreko terrenon Basakabi baino beraxio.



Xumar Bakero

Ezkurrekon, Perraleku aldera abitu ta azpikalden.



Nekane Elizalde

Basakabitik bettixio.



Mari Pilar Untxalo

Diskusioa beti izandu da hori, Iturburua Beiñesen biño erreka-ri izena Biutatik ematen dela... Hori bai, Ezkurrekon.



Itsaso Lujanbio

Beñisko iturrin.



ZURE TXANDA

ANGEL ELIZEGI



Nolakoa da zure egun bat?

8k aldera jeiki, gosalduta eta baratzara joaten naiz edo bestela oinez ibiltzera, eguerdi aldera txuri bat hartuz, egunkaria irakurri. Ondoren bazkalduta, siesta ttiki bat telebistari begira eta gero jokura, kafe bat hartuz. Afalduta eta 11k aldera ohera.

Zein zen zure umetako jolasik gustokoena?

Kanikatan, gordeka, txorromorroka...

Ze ikasketa egin dituzu?

E.G.B. bukatu nuen.

Zenbat urtekin hasi zinen lanean?

14 urtekin, Beniton tailerrean konmon tapak egiten.

Zure lehen gaupasa, noiz egin zenuen?

23-24 urtekin, Goizuetan bertan.

Mozorrotan atera izan al zara?

Ez, beñe.

Eta festetan, Peñan?

17 urtekin, lehenbiziko aldiz.

Mugikorrik bai al duzu? eta sare sozialik erabiltzen al duzu?

Bai, badut mugikorra eta sare sozialak, deusez!

Zein da zure janari gustokoena? Eta prestatzeko gai izango al zinateke?

Gehiena, igual arraia, eta edozer gauza prestatzeko gai naiz!

Bertako txoko gustokoena zein duzu?

Elkartea.

IÑIGO ELIZEGI



Nolakoa da zure egun bat?

5:10ean esnatuta eta lanera, lantokian bazkaltzen dut eta 4tako etxean naiz eta ondoren ezkereskuin zerbettetan ari!

Zein zen zure umetako jolasik gustokoena?

Edozer gauzatan biño itxetik kanpo!

Ze ikasketa egin dituzu?

Bi grado superior eta ingenieritza hasiera.

Zenbat urtekin hasi zinen lanean?

Oporretan eta... 14 urtekin eta gero ikasketak eta lana 19-20 urtekin.

Zure lehen gaupasa, noiz egin zenuen?

Goizuetako festetan 16 urtekin.

Mozorrotan atera izan al zara?

Bai noski! 17kin hasi eta denara 16 urtetan ibili naiz ta oraindik erretiratzekoa!

Eta festetan, Peñan?

17 urtekin.

Mugikorrik bai al duzu? eta sare sozialik erabiltzen al duzu?

Bai, 24 urtekin lenbizikoa eta whatsapp.

Zein da zure janari gustokoena? Eta prestatzeko gai izango al zinateke?

Gauz gutxi dia gustatzen zaizkidanak, eta gauz asko prestatzeko gai naiz.

Bertako txoko gustokoena zein duzu?

Amona motzan kaxkoa.

IORITZ ELIZEGI



Nolakoa da zure egun bat?

Goizean goiz esnatzen banaiz bizikletan buelta bat itten dut, ondoren bazkalduta ta arratsalden lanik in beharrik ez badut lagunakin gelditzen naiz.

Zein zen zure umetako jolasik gustokoena?

Gustokoena pilotan ibiltzera.

Ze ikasketa egin dituzu?

DBH-2 arte Goizuetan, DBH-4 Hernanin bukatu nuen eta orain grado medio bat Urnietan egiten ari naiz.

Zenbat urtekin hasi zinen lanean?

17 urtekin.

Zure lehen gaupasa, noiz egin zenuen?

Herriko festetan 16 urtekin.

Mozorrotan atera izan al zara?

Bai, aurreneko urtea 17 urtekin.

Eta festetan, Peñan?

Peñan ere 17 urtekin.

Mugikorrik bai al duzu? eta sare sozialik erabiltzen al duzu?

Mugikorra badut baino ez dut asko ibiltzen, lehenengoa 15 urtekin izan nuen. Whatsapa eta instagram tarteka.

Zein da zure janari gustokoena? Eta prestatzeko gai izango al zinateke?

Makarroiak, ta bai badakizkit prestatzen.

Bertako txoko gustokoena zein duzu?

Bat esatekotan.... Goiko-itturri.